

PRENTSA OHARRA: 2021.10.18

Trio Zukan ganbera musika taldeak kontzertua emango du Montrealen

- **Quasar Saxophone Quartet-ekin batera eskainiko dute sortzaile euskaldun zein kanadarren lanez osaturiko ekitaldia**
- **Kultur trukeak jarraipena izango du azaroan, Musika Garaikidearen Zirkuituaren baitan egingo duten emanaldiarekin**

Trio Zukan ganbera musika taldeak kontzertua eskainiko du datorren urriaren 20an Montrealeko Artzain Onaren Kapera Historikoan. Ekitaldia Saison Québec – Pays Basque 2021-2022 egitasmoaren baitan antolatu da, Etxepare Euskal Institutuak sustatuta, Kanadako Quasar Saxophone Quartet-ekin batera kontzertua eskainiko dute.

2020ko martxoan abian jarri behar zen musika elkartrukea 2021 bukaeraraino atzeratu du Covid-19aren ondoriozko krisiak. Hala eta guztiz ere, azkenean, saxofoi laukotea eta akordeoiak, perkusioak eta txistuak osatzen duten hirukoteak kontzertua eskainiko du Montrealen. Institutuak sustatu duen sorkuntza proiektu horrek bi musika talde eta bi herrialdeetako hainbat konpositoreren lanak bateratuko ditu.

Izan ere, joan-etorriko izaera duen Saison Québec – Pays Basque programaren helburua da euskal kultura eta sorkuntza garaikideari Quebecen leiho bat irekitzea, eta, era berean, Quebecoko sortzaileen lana Euskadin erakustea. Horrela, sortzaile euskaldun zein kanadarren lanez osaturiko kontzertu-programa izango da bi taldeek eskainiko dutena datorren urriaren 20an. Trio Zukanek Mikel Chamizo eta Zuriñe F.



Gerenabarrenaren lanak eskainiko ditu kontzertuan, eta Quasar Quartet-ek Bertrand Dubedoutena. Horiez gain, bi estreinaldi ere izango dira ekitaldian.

Egungo sorkuntza eta herrialde parte-hartzaileen arteko nahasketa indartzeko asmoz, bi taldeek euren herrialdeko konpositore banari obrak eskatu dizkiete, musikaren historian lehen aldiz akordeoia, perkusioa, txistua eta saxofoi laukotea bateratuko dituzten bi obra berriren sorrera ekarri duelarik trukaketak: 'Quantum Statistical Zero-Knowledge' Emilie Girard-Charesten lana eta Miguel Matamororen 'Concerto grosso'.

Gainera, bitariko hitzarmenak jarraipena izango du 2021eko azaroan. Izan ere, Montrealgo kontzertua Gasteizen errepikatuko dute bi taldeek azaroaren 15ean Musikagileak Musika Garaikidearen Zirkuituan. Bertan, kontzertu-programa bera entzuteko aukera izango da, euskal hirukotea eta saxofoi laukote formazioa uztartuko dituen ekitaldian.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus